Donostian bizi den lasartearra. Gaur egun, antzerki-itzultzailea eta irakasle autonomoa.

Billabonako ikastolan eta Donostiako HABE euskaltegian irakasle hamar urtean ibili ondoren, letrekin topo egin zuen, Martuteneko Itzultzaile Eskolan, eta zeharo maitemindu. 1992an, Itzulidatz lan-taldea sortu zuen, Xabier Mendiguren Bereziarturekin batera. Geroztik, mordoxka bat irakasle, itzultzaile eta idazle trebatu ditu idatzizko komunikazioan.

Telesail eta antzezlan askotan parte hartu du itzultzaile eta zuzendari-laguntzaile gisa, besteak beste, *Mephisto* (Klaus Mann), *Anarkista baten ezusteko heriotza* (Dario Fo), *Artea* (Yasmina Reza), *Lapurzuloa* (Stephen Adly Guirgis), *Hor al zaude?* (Javier Daulte), *Grönholm metodoa* (Jordi Galceran), *Ilunpetan* (Peter Shaffer), *Presidente andreak* (Werner Schwab) eta *Ahuntza edo nor da Silvia* (Edward Albee).

Hamalau urte eman ditu *Testu-interpretazioa euskaraz* gaia jorratzen Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean. Jardun horren fruitu da ahots gorako irakurketa-metodo bat, *Esatearen ederra* izena duena.

Ikastaro ugari diseinatu eta eman ditu irakurketaz eta ahozko komunikazioaz oro har, irakasleentzat, aktoreentzat eta komunikabideetako profesionalentzat.